

UNIBERTSITATE MAILAKO SOZIOLINGUISTIKAREN IRAKASKUNTZA ETA IKERKUNTZA IPAR EUSKAL HERRIAN

Eguzki Urteaga

Euskal Herriko Unibertsitateko Irakaslea

Helbide elektronikoa: eguzki.urteaga@ehu.es

SARRERA

Unibertsitate mailako soziolinguistikaren irakaskuntza eta ikerkuntzaren egoera Ipar Euskal Herrian, eragile guztien kontzientzia-hartzeari, botere publikoena barne, eta hizkuntza politika baten osaketari lotua dago. Izan ere, euskararen aldeko neurriak hartzeko nahikeria, gelak irikiz, irakasle lanpostuak sortuz ala bekak eskainiz agertu da. Soziolinguistikaren irakaskuntza azken urteetan Euskal Ikasketetan garatu bada, lehenik Masterrean ordu gutxiko hautazko irakasgaien bidez eta ondoren Lizentzian ordu gehiagoko derrigorrezko irakasgaien bitartez, ikerkuntzaren egoera hobe da zeren, Eusko Jaurlaritzak, INSEEk, Euskal Kultur Erakundeak, eta Hizkuntza Kontseiluak buruturiko ikerketa zabal bezain handiez gain, zenbait ikerlarik, beraien kabuz, ikerketa sendo eta zehatzak burutu baitituzte.

SOZIOLINGUISTIKAREN GARAPENAREN BALDINTZAK

Eragileen kontzientzia hartzea

Unibertsitate mailako soziolinguistikaren irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren garapena testuinguru politiko eta kultural batengandik banaezina da.

Izan ere, 1992an, Euskal Herria 2010 Prospektibak, hausnarketa kolektibo baten hasiera adierazi zuen Ipar Euskal Herriaren eta bere hizkuntzaren geroari buruz. 1992ko irailetik at, Baionako Suprefetak, tokiko hautetsiek, lanbideetako ordezkariak, gobernuko teknikariak, eta elkartekideek elkarrekin egoeraren azterketa bat eta ikuspegi prospektibo bat egin dute.

Azterketa horren emaitzak hiru txostenen bidez plazaratu dira. Aurkezpena 1993ko abenduaren 4an suertatu zen Baionako Industria eta Merkataritza Ganbaran eta txosten horietan aurkitu daiteke: 1) gaurko egoeraren azterketa bat, ikuspegi historiko baten bidez, bere osagai ekonomiko, politiko, sozial eta kulturaletan, 2) egitura azterketa bat, zeinek aldaketa sektoreak, joera nagusiak, eta geroko funtsezko neurriak azpimarratzen dituen, 3) prospektiba bat, zeinek geroko sei eskenatokiak agerrarazten dituen. Batek gaurko egoeraren bilakaera jarraitzen badu, besteak suerta daitezkeen eskenatokiak deskribatzen ditu, beti ere eragileen erabakien arabera.

Prospektibaren egileen arabera, Ipar Euskal Herriak bere hizkuntzari, kulturari, eta historiari lotua dagoen nortasun indartsu bat dauka. Bere lehen aberastasuna hizkuntza da eta, nahiz eta Europako zaharrenetarikoa izan, hiltzorian dago euskarazko irakaskuntzaren garapena ez baita aski bere erabilpena berpizteko. Funtsean bost ondorioa nagusi ateratzen ditu: 1) Ipar Euskal Herriaren modernizazioa euskararen galerarekin bat doala; 2) erabilera mugatua dela, nahiz eta ikasteko gogoa handia izan; 3) euskarazko irakaskuntzak garapen bat ezagutzen duela; 4) helduentzako irakaskuntza urria dela; eta 5) euskal kulturak diru gutxi jasotzen duela.

Lan horri esker, eragile guztiek, botere publikoek barne, kontzientzia hartzen dute ezer egin ezean, euskarak galtzeko arriskua daukala eta bere aldeko neurriak hartu behar direla, lehenik irakaskuntzan. Oro har, hizkuntza politika baten beharra azpimarratzen da.

Hizkuntza politikaren lehen urratsak

Prospektiba horrek jarraipenik ukan du Euskal Herriko Garapen eta Antolaketa Eskemarekin. Modu adostuan osatua izan da, estatuaren, eskualdearen, departamenduaren, lurralde kolektibitateen, eta gizarte zibilaren ordezkarien parte hartzearekin. “Proposatzen duen geroaren ikuspegia-
rengatik, adierazten duen handi-nahiarengatik, eskatzen duen konprometuzarengatik, Garapen eta Antolaketa Eskema egitasmo estrategiko bat da Euskal Herriarentzako hemendik 2010era. Bere gain hartzen duen nortasun baten gainean finkatua izanik, Eskemak, norabideak zehazten ditu eta helburuak zein egitarau operazionalak ezartzen”.

Oro har, bere helburuak hirukoitzak dira: Ipar Euskal Herriaren aldaketa gogozko baten dinamika zehaztea eta partekaraztea, tokiko eragileen mobilizazio kolektibo bezain iraunkorra bermatzea, eta adostasun orokor bat bultzatzea. Soilik helburu horietatik abiatuz uler daiteke Antolaketa Eskemaren kokapena eta edukia, zeren bere helburua ez baita Ipar Euskal

Unibertsitate mailako soziolinguistikaren irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren garapena testuinguru politiko eta kultural batengandik banaezina da. Izan ere, 1992an, Euskal Herria 2010 Prospektibak, hausnarketa kolektibo baten hasiera adierazi zuen Ipar Euskal Herriaren eta bere hizkuntzaren geroari buruz. 1992ko irailetik at, Baionako Suprefetak, tokiko hautetsiek, lanbideetako ordezkariak, gobernuko teknikariak, eta elkartekideek elkarrekin egoeraren azterketa bat eta ikuspegi prospektibo bat egin dute.

*Oro har, bere helburuak
hirukoitzak dira: Ipar
Euskal Herriaren aldaketa
gogozko baten dinamika
zehaztea eta
partekaraztea, tokiko
eragileen mobilizazio
kolektibo bezain
iraunkorra bermatzea, eta
adostasun orokor bat
bultzatzea. Soilik helburu
horietatik abiatuz uler
daiteke Antolaketa
Eskemaren kokapena eta
edukia, zeren bere
helburua ez baita Ipar
Euskal Herriko erronka
guztiak aipatzea ezta ere
lurralde horretan
burutuko diren politika
publiko guztiak
norabidetzea. Bakarrik,
Ipar Euskal Herriari
buruz ikuspegi orokorra
daukaten egitasmo zein
galderak kontuan hartzen
ditu.*

Herriko erronka guztiak aipatzea ezta ere lurralde horretan burutuko diren politika publiko guztiak norabidetzea. Bakarrik, Ipar Euskal Herriari buruz ikuspegi orokorra daukaten egitasmo zein galderak kontuan hartzen ditu. Hori dela eta, Eskemaren helburua eragile zein egitasmo ezberdinei interpretazio kokaleku bat eta koherentzia bat ematea da.

Eskema hau ez dute soilik adituek osatu, Ipar Euskal Herriko elkarte eta erakunde guztien inplikazioaren fruitua izan baita. Osatzerakoan eta erabaki estrategikoak hartzerakoan, joan-etorri askori esker, Eskemak Ipar Euskal Herriari buruzko ikuspegi bat baino gehiago hartu ditu kontuan lurralde honen antolaketaren eta garapenaren aukera estrategikoa eginez. Hizkuntza atala daukan Garapen eta Antolaketa Eskema, Ipar Euskal Herriko garapen dinamika espazialen ikuspegi amankomuna proposatzeko eta taxutzeko handi-nahiarekin osatua izan da; ondoren, eragile bakoitzak bere arloan eta tokian gauzatu eta lagundu du.

Eskemak argiki planteatu ditu nortasun kulturalari loturiko erronkak eta nortasun horren garrantzia Ipar Euskal Herriaren garapenean. Euskararen erabilerari buruz bi ohar egiten dira: batetik, euskararen familia transmisioak ez duela gehiago eraginik eta, bestetik, azken 30 urteetan euskarazko irakaskuntza garatzeko eginak izan diren indarrak ez dutela familia transmisioaren gabezia ordezkatu. Zentzu horretan, irakaskuntzaren garapena funtsezkoa bada, ez da nahikoa euskararen berreskurapena bermatzeko. Testuinguru honetan, euskararen ezagutza eta erabilera garatzeko hizkuntza politika egoki bat osatzea funtsezkotzat jotzen da, horrek hiru gauza suposatzen dituelarik: 1) denboran zehar kokatzen den eta berkonposaketa bermatzen duen ekintza sakona; 2) euskara ikasteko gogoia bultzatuko duen sustatze lana; eta 3) neurri larriak euskara berriz baloratzeko.

Eskemak euskarazko irakaskuntza bultzatu nahi du irakaskuntza elebidunaren eskaintza orokortuz, batetik, modu adostuan osatutako estrategia baten bitartez eta, bestetik, euskarazko lehen irakaspenaren eskaintza bermatuz, horrek, irakasleen kontratazioa baita pedagogia, ekipamendu, eta logistika egokiak lortzea suposatzen duelarik. Era berean, helduei zuzendua dagoen euskarazko irakaskuntza eskaintza indartu gura du. Irakaskuntza honen eskaintza oso urria da euskararen erabilerak derrigortzen dituen erronkak kontuan hartuta, giza, tekniko eta material baliabideak mobilizatzea ezinbestekoa delarik. Horrez gain, hizkuntza paisajea berkonposatu nahi du: euskarazko seinalekuntza garatuz, euskarazko komunikabideen sorkuntza eta berkonposaketa sustengatuz, eta elebitasuna zerbitzu publikoetan indartuz.

Azkenik, 2000ko azaroan 2001-2006 Euskal Herriko Hitzarmen Berezia izenpetuko da. Berau ulertzeko ezinbestekoa da Garapen eta Antolaketa Eskema kontuan hartzea, jakinik, 1997ko abenduaren 15ean, CIADTri aurkeztu ostean, Estatuak Garapen Hitzarmen batean gauzatzea erabaki duela. Hitzarmen horren helburua jarraian gauza daitezkeen neurriak hastea eta sustengatzea da, Estatu-Eskualde Plan Kontratua izenpetu arte. 1997ko

egitarauak aurreikusten du, hitzarmenak, ondare eta kultura arloko ekintzak indartuko dituela baita aurreikusten ere 2000-2006 Plan Kontratuak jarraipena hartuko duela ekintza berrien diruztatzea segurtatuz. Hala izan dadin, 1998 eta 2000. urteen bitartean, Garapen eta Hautetsien Kontseiluek, estatuarekin, Eskualde Kontseiluarekin, Kontseilu Orokorrarekin eta Baiona-Angelu-Biarritze barrutiarekin hitz egin baita negoziatu dute Ipar Euskal Herriaren ekarpena zehazteko Antolaketa Eskemaren ardatzen inguruan, geroztik gertatu diren aldaketak kontuan hartuz.

Estatu-Eskualde Plan Kontratuak hainbat neurri diruztatzea aurreikusten du, eta lurraldearen antolaketa zein garapen iraunkorreko norabideak legearen aplikapenean sartzea proposatzen du. 2000ko maiatzaren 18ko CIADTak Akitania Eskualdeko Prefetari eta Pirineo-Atlantikoetako Prefetari eskatu die, eskualdearekin, departamenduarekin, eta Hautetsien Kontseiluarekin hitzarmen berezi bat osa eta ondoren negoziatzea deitzen.

Horrelako hitzarmen bat eratzeke, metodologia zehatza osatzea eta ondoren gauzatzea ezinbestekotzat jotzen da. Izan ere, estatuak kudeaturik eragile instituzional guztiak batzen dira proposamenak gorpuzteko, beti ere Euskal Herriko Garapen eta Antolaketa Eskematik abiatuz eta jakinik 2000. urtean ebaluaketa bat egingo dela. Ondoren, estatuaren eta lurralde kolektibitateen zerbitzuek teknikoki jorratu dituzte eta, lan hori amaitu ondoren, erabaki guneetara eraman dute. Bestalde, ekintza publikoaren ulergarritasuna hobetu nahiaz, lurralde osoa kontuan hartzen du, Baionako aglomerazioa barne. Funtsean, hitzarmen berezia bi helburuetan kokatzen da: 1) Ipar Euskal Herria euro-eskualdearen lurralde estrategikoa izatea; eta 2) bere barne batasuna mantentzea zein azkartzea. Proposatutako neurri bakoitzarentzat, aurreikusitako dirutza bat zehaztu da, diruemaileak dirutza bat ematera engaiatzen direlarik.

Hitzarmen berezia hizkuntza atalarekin hasten da egileek lehentasuna ematen baitiote. Bere gain hartzen ditu 1997an Hizkuntza Antolaketa Eskemak egiten dituen oharrrak, jakinik Eskema hori aukera izan dela euskara berreskuratzeko plan bat osatzeko, Fishmanek egindako gomendioak bereganatuz. Bere aburuz, lurralde batean hizkuntza asko daudenean sei etapa jarraitu behar dira zailtasunean dagoen hizkuntza balorizatzeke.

Ondorioz, funtsezko galdera euskara sustengatzeko hizkuntza politikaren obragintza publikoarena da, zeren, eragile guztiek onartzen badute euskara gizadiaren ondarearen zati dela eta orain arte onartuak izan diren neurriak ez direla nahikoak euskararen galera gelditzeko, ezin baitaiteke euskararen garapena elkarte eta botere publikoen arteko harreman gatazkatsuei eta militanteen lanari utzi, beti ere elkarte munduak urteetan zehar egin duen lana ezagutuz, kapitalizatuz, eta desmartxa boluntarista bezain eraginkor batean kokatuz. Bestalde, Eurokartari buruzko eztabaidak ala Poignant txostenak bi osagai argitu ditu, batetik, tokiko hizkuntza ez dela lurralde kolektibitate bakar baten gaitasuna eta, bestetik, legean ezerk ez diela debekatzen hizkuntza politika bat martxan

*Hitzarmen berezia
hizkuntza atalarekin
hasten da egileek
lehentasuna ematen
baitiote. Bere gain
hartzen ditu 1997an
Hizkuntza Antolaketa
Eskemak egiten dituen
oharrak, jakinik Eskema
hori aukera izan dela
euskara berreskuratzeko
plan bat osatzeko,
Fishmanek egindako
gomendioak bereganatuz.
Bere aburuz, lurralde
batean hizkuntza asko
daudenean sei etapa
jarraitu behar dira
zailtasunean dagoen
hizkuntza balorizatzeke.*

Botere publikoen esku izango den hizkuntza politika bat zehaztea, obragintza publiko horrek estatua, eskualdea, departamentua eta udalak batzen dituelarik.

Egitura horren eginbeharrak dira: 1) euskararen alde martxan jarri behar den hizkuntza politikaren oinarriak zehaztea; 2) baliabideak mobilizatzea; eta 3) gauzatu behar diren egitasmoak finkatzea.

jartzea. Azkenik, 2000ko apirilean, Garapen Kontseiluak Antolaketa Eskemari buruz egindako ebaluaketak euskararen aldeko hizkuntza politika baten beharra agerian ezarri du. Horrek, hitzarmen bereziaren egileak eginbeharretan eta ez egituretan oinarritutako gailu bat osatzera eramatu ditu. Hauek dira funtsak:

1. Botere publikoen esku izango den hizkuntza politika bat zehaztea, obragintza publiko horrek estatua, eskualdea, departamentua eta udalak batzen dituelarik. Egitura horren eginbeharrak dira: 1) euskararen alde martxan jarri behar den hizkuntza politikaren oinarriak zehaztea; 2) baliabideak mobilizatzea; eta 3) gauzatu behar diren egitasmoak finkatzea.
2. Obragintza Publikoari lotuta dauden eta hizkuntza eragile guztiak batuko dituen Hizkuntza Kontseilu bat sortzea, koordinaketa, behatoki, proposamen, eta ebaluaketa egitekoekin.
3. Ibilmolde baliabideak negoziatutako kargu-txostenen gainean oinarrituz eta ebaluaketak maiz eginez, obralari publikoak ala pribatuak hautatzea egitasmoak gauzatzeko asmoz.

Horrek, hitzarmen berezian adostutako hamar ekintzetara garamatza:

- Hizkuntza Kontseilua sortzea,
- Euskara eskolan ikasteko sentsibilizatzea,
- Eskolari loturiko eragile euskaldunak sustengatzea,
- Heziketa iraunkorreko eragileak profesionalizatzea,
- Euskaltzaindiaren ikerketa egitarauak laguntzea,
- Euskararen Ikerketa Gunearen kokapena bermatzea,
- Euskarazko material pedagogikoaren ekoizpena bultzatzea,
- Euskal irratia egitasmo amankomun batera gidatzea eta euskararen presentzia tokiko irratietan eta telebistetan garatzea,
- Lurralde osoan, ETBren jasotze baldintza onak bermatzea,
- Euskara interneten garatzeko laguntza fondo bat martxan jartzea.

Egitura berrien sorrera

Baina laister agertzen da osatu den hizkuntza politikak eta, batez ere, berau osatzeko eta ondoren gauzatzeko ardura duten tresnak ez direla egokiak egoera soziolinguistikoari aurre egiteko. Alde batetik, Obragintza publikoak ez dauka egonkortasunik urtean hiru edo lau aldiz biltzen baita Euskal Herriko Hitzarmen Bereziaren hizkuntza atalak batzen dituen ekintzen aplikapen maila neurtzeko eta dirua banatzeko. Beste aldetik, Hizkuntza Kontseiluak hainbat arazori aurre egin behar dio: 1) hizkuntza gutxituei buruzko legediaren egonkortasuna, 2) erabakitze botere eza, 3) bere administrazio kontseiluaren konposizio anitza bezain ezberdina, 4) berak

adierazitako gomendioen aplikapen ez osoa, 5) erabaki prozesuaren luzetasuna, 6) pertsona batzuen mandatu pilaketa eta 7) elkarte estatusa.

2003. urte hasieran, egoerak txarrera egiten du euskalgintzan diharduten elkarte batzuen erradikalizazioarekin. Hain zuzen ere, Batera plataforma mobilizatzen den testuinguruan, Hizkuntza Kontseiluko lehendakariak erakunde horretako zuzendaria kanporatzea erabakitzen du. Azken honek Hizkuntza Kontseilua epaitegietara eramaten du eta honek zuzendariari arrazoia ematen dio esanez bere kanporakera legez kanpoko eta abusiboa dela. Gertakari horiek bi ondorio ukan dituzte. Batetik, Hizkuntza Kontseiluaren ibilmodea geldituko da eta, bestetik, epaitegiek erakunde hori zigortu duenez, ezin du gehiago diru publikorik jaso Ministeritzaren onespena ezin baitu ukan.

Egoera horretaz jabetuz eta Eusko Jaurlaritzaren esperientzia kontuan hartuz, Estatuak, Akitaniako Eskualdeak, eta Pirineo Atlantikoetako Departamenduak gailua berriz pentsatzea erabakitzen du bi egitura berri sortuz. Lehenik, erakunde publiko guztiak batzen dituen Euskararen Erakunde Publikoa osatzen du, bere eginkizunak Obragintza Publikoaren antzekoak direlarik. Bigarrenik, Aholku Batzorde bat martxan jartzen du, osatuko den hizkuntza politika eztabaidatzeko eta hizkuntza elkarteek egiten dituzten gomendioak, oharrak, eta kritikak jasotzeko. Batzorde hau Erakunde Publikoaren kontrolpean izateaz gain, bere beharren arabera batzen da.

Euskal Herriko Hitzarmen Berezia 2006an amaitzen denez, Euskararen Erakunde Publikoa hizkuntza politika berri bat osatzen ari da, Aholku Batzordearen laguntzarekin. Aurre-egitasmoak 11 helburu ditu, euskararen transmisioa, erabilpena, kalitatea, eta motibazioa bermatzeko asmoz:

1. Familiaren hizkuntza transmisioa indartu.
2. Adin txikiko umeentzako zerbitzu elebidunak eta euskadunak eskaini.
3. Euskarazko eta euskararen irakaskuntza garatu.
4. Komunikabideak erabili euskara hedatzeko eta hobetzeko.
5. Euskararen erabilpen ludikoa egin.
6. Euskarazko liburugintza eskaintza erakargarria eta eskuragarria bilakatu.
7. Euskararen ikaskuntzatik bere erabilpenera igaro.
8. Toponimia erabili euskara ikusgarria bilakatzeko eta hiztun berriak motibatzen.
9. Kultura ala profesional arrazoiengatik, helduei aukera ematea euskara ikas ala hobe dezaten.
10. Euskararen kalitatearen ardura edukitzea, irakaskuntzan, hedapenean, komunikabidean eta eguneroko erabilpenean.
11. Motibapena handitzea, euskararen irakaskuntza, transmisioa eta erabilpena dinamizatzen.

*Euskal Herriko
Hitzarmen Berezia 2006an
amaitzen denez,
Euskararen Erakunde
Publikoa hizkuntza
politika berri bat osatzen
ari da, Aholku
Batzordearen
laguntzarekin. Aurre-
egitasmoak 11 helburu
ditu, euskararen
transmisioa, erabilpena,
kalitatea, eta motibazioa
bermatzeko asmoz.*

Soziolinguistikaren presentzia, Paue eta Aturriko Herrietako Unibertsitatean eta, batez ere, Baionako Irakasgaien Arteko Fakultatean, testuinguru honetan kokatzen da. Hain zuzen ere, Euskal Filologiak edo Euskal Ikasketek beraien egitarauan sartu dituzte soziolinguistikazko irakasgaiak, lehenik Masterrean eta, bereziki DEAn, eta ondoren Lizentzian.

SOZIOLINGUISTIKAZKO IRAKASKUNTZAREN ETA IKERKUNTZAREN HAZKUNDEA

Goi mailako irakaskuntzaren egoera

Soziolinguistikaren presentzia, Paue eta Aturriko Herrietako Unibertsitatean eta, batez ere, Baionako Irakasgaien Arteko Fakultatean, testuinguru honetan kokatzen da. Hain zuzen ere, Euskal Filologiak edo Euskal Ikasketek beraien egitarauan sartu dituzte soziolinguistikazko irakasgaiak, lehenik Masterrean eta, bereziki DEAn, eta ondoren Lizentzian.

Lehen kasuan, ordu gutxiko hautazko irakasgaiak dira eta ikerketak egiten dituzten ikasleei norabidetuak daude funtsean. Hor dira adibide gisa Jean-Baptiste Coyosek ala nik eskainitako irakasgaiak euskararen egoera soziolinguistikokoari buruz Ipar Euskal Herrian ala euskararen egoera eta gobernantza berriari buruz. Bigarren kasuan, aldiz, ordu gehiagoko eta derrigorrezko irakasgaiak dira, batez ere soziolinguistikaren oinarriak agertu nahi direlarik, hizkuntz komunitate, hizkuntz harreman, ala hizkuntz politika kontzeptuak landuz, baita ere euskararen egoera zein den ikusiz Ipar Euskal Herrian, ezagutza, erabilera, eta transmisio mailak jorratuz eta pixkanaka osatzen ari den hizkuntza politika aipatuz.

Aitzitik, Euskal Herriko Unibertsitatean gertatzen ez den bezala, soziolinguistikak ez du inongo prentsetziarik, ez Soziologian, ez Zientzia Politiketan, ez Letretan. Nahiz eta Baionako Letren saila garatu eta euskarazko klaseak egon, ez dago ardura handirik soziolinguistika gaiak jorratzeko, batetik ez baita funtsezko irakasgai bezala ikusten eta, bestetik, sail horietako ikasleen eta irakasleen eskaera ez delako nahikoa.

Ikerkuntza maila

Ikerketari dagokionez, erakunde publikoek burututako ikerketa handiak eta ikerlari indibidualek egindako lanak bereiztea komeni da, lehenen aipamenera mugatuko bagara ere. Ipar Euskal Herrian, lau ikerketa handi bereiz daitezke:

1. Lehen ikerketa soziolinguistiko nagusiak Eusko Jaurlaritzaren eskutik datoz, kontuan izanik 1991tik landa hiru ikerketa burutu dituela: 1991an, 1996an, eta 2001ean, aldi bakoitzean partaide ezberdinekin: lehena Siadecorekin, bigarrena Euskal Kultur Erakundearekin, eta hirugarrena Hizkuntza Kontseiluarekin. Inkesta horietan, gehienik 1720 pertsona galdezkatuak izan dira 50 galderako galdesorta zehatz batzuen bidez, euskaraz edo frantsesez, beraien hizkuntz gaitasuna, transmisioa, erabilera ezagutzeko, baita ere euskararen sustapenarekiko dituzten iritziak jorratzeko.

1996ko inkestaren kasuan, Ipar Euskal Herriko laginaren diseinuaz eta prestakuntzaz Institut National de la Statistique et des Etudes Economiqu-

es (INSEE) erakundea arduratu da, landa lana Euskal Kultur Erakundeak egin duelarik. Informazio bilketa 1996ko urtarrila eta apirila bitartean egin da, inkestatu bakoitzari telefono bidez eta egituratutako galdesorta erabiliz inkesta egin zaiolarik. 15 urtetik gorako biztanleei zuzendutako laginak 1400 inkesta bildu ditu: 392 BABn, 508 Lapurdi barnealdean, eta 500 Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Lurralde bakoitzean jasotako emaitzak ponderatu egin dira, galdezkatutako biztanleriaren banaketa, sexuaren, adinaren eta jarduera-adarraren arabera burutu delarik. Ipar Euskal Herrian, inkestak zein etxebizitzetan egin behar diren erabakitzeke, etapa bakarreko laginketa geruzatua erabili da. Etxebizitza bakoitzean, gizabanakoen aukeraketa hautazkoa izan da. Lurralde horretako laginketa-akatsa -+2,9koa da, % 95,5eko konfiantza mailarekin.

2. Halaber, 1999an, «Familia Historiaren Ikerketa», Institut National d'Études Démographiques-en (INED) laguntzarekin, INSEEk burutu zuen, ustiaketa bi erakunde horiek elkarrekin burutu dutelarik. Lehen aldiz, hizkuntza gutxituen transmisioari buruzko atal bat dago, lau galderez osatua. Atal honen bidez hiru ardatz nagusi jorratu dira: 1) haurtzaroan zehar, norberaren gurasoen transmititutako hizkuntza ezberdinen oinordetza, 2) norberak bere haurrekin hizkuntza horietaz egin duen erabilpena, 3) norberaren ingurugiroan egindako hizkuntza horien erabilpena.

1999ko martxoan, galderasorta horiek erroldaren boletinarekin batera bete dira eta 6000 pertsona ukitu dituzte Ipar Euskal Herrian, zaharrenak 1914ko Lehen Mundu Gerra aurretik sortu direlarik. Hizkuntza gutxituen ordezkaritza ahalik eta hurbilena lortzeko, gune geografiko batzuk, Ipar Euskal Herria barne, laginean gehiago ebaluatua izan dira. Eskualde mailan egindako ponderazioek azterketa zehatzago bat baimendu dute, lanbidea, adina, sexua eta bizi gunea kontuan hartuz.

Datu horietatik abiatuz, INSEE eta Hizkuntza Kontseiluaren artean komentario bat egin da, hiru zati bereiziz: 1) diagnostia, hau da, jasotako datuen irakurketa ; 2) bilakaera, hots, denboran zehar ikusten diren aldaketak eta egonkortasunak ; 3) prospektiba, alegia, geroari begira atera daitezkeen ondorioak. Hortik aurrera, honako hipotesia aurreratu da: beherakada bolada iraunkor baten ostean, euskara egonkortze prozesu batean sartu dela dirudi. Are eta gehiago, jakitean noiz-behinkako transmisioa bezalako erakusle batzuek berpizte bat agertzen dutela. Hala ere, euskararen berreskurapenak, bere garapena bermatuko duten egitura neurriak hartzea suposatzen du, hizkuntza politika handinahi baten bidez.

3. Urte berean, Iñaki Martínez de Luna eta Kontxesi Berrio-Otxoa-ren zuzendaritzapean, «Etorkizuna aurreikusten 99» deituriko ikerketa burutu zen, 1998-1999 ikasturtean, Euskal Herriko ikastetxe batzuetan, 13-14 urteko gaztetxoek euskaltasuna neurtzeko asmoz. Emaitzak eta sortu dituzten hausnarketak 290 orrialdeko liburu batean plazaratuak izan dira. Ipar Eus-

Aitzitik, Euskal Herriko Unibertsitatean gertatzen ez den bezala, soziolinguistikak ez du inongo prentsetziarik, ez Soziologian, ez Zientzia Politiketan, ez Letretan. Nahiz eta Baionako Letren saila garatu eta euskarazko klaseak egon, ez dago ardura handirik soziolinguistika gaiak jorratzeko, batetik ez baita funtsezko irakasgai bezala ikusten eta, bestetik, sail horietako ikasleen eta irakasleen eskaera ez delako nahikoa.

**Lehen ikerketa
soziolinguistiko nagusiak
Eusko Jaurlaritzaren
eskutik datoz, kontuan
izanik 1991tik landa hiru
ikerketa burutu dituela:
1991an, 1996an, eta
2001ean, aldi bakoitzean
partaide ezberdinekin:
lehena Siadecorekin,
bigarrena Euskal Kultur
Erakundearekin, eta
hirugarrena Hizkuntza
Kontseiluarekin. Inkesta
horietan, gehienik 1720
pertsona galdezkatuak
izan dira 50 galderako
galdesorta zehatz batzuen
bidez, euskaraz edo
frantsesez, beraien
hizkuntz gaitasuna,
transmisioa, erabilera
ezagutzeko, baita ere
euskararen
sustapenarekiko dituzten
iritziak jorratzeko.**

kal Herrian, 23 ikastetxeetako (11 eskola publiko, 11 eskola pribatu, eta ikastola 1) 528 gaztetxo galdezkatuak izan dira, ikerketa horretan Euskal Herriko Unibertsitateak, Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Euskal Kultur Erakundeak parte hartu dutelarik. Gogora daiteke lehen ikerlana EHUko irakasleek 1993an egin zutela, Michagan Unibertsitatean erabiltzen den *Monitoring The Future* diseinua Euskal Herrira egokituz.

Inkestaren abiapundua honakoa da: «gaztetxoaren hizkuntza nortasuna ezagutzeak, etorkizunean izango dugun gizartearen hizkuntza kezka eta nahiak ulertzeko lagunduko du». Gaztetxoaren adina haurtzaroaren eta heldutasunaren arteko etapa da, esan nahi baita, batetik, gaztetxoa familiari eta hezkuntza sistemari lotua dagoela eta, bestetik, bere mundua eraikitzen ari dela, helduen balore sistema jorratuz, lagunartean ibiliz, eta mundualizazio birtual bat asmatuz, bereziki telebistaren eta interneten bidez. Horrez gain, adin horretako ezaugarrietariko bat, bat-bateko zintzotasuna erakustea da bere iritzia ematerako orduan.

Aukeratutako metodologia inkesta kuantitatiboarena izan da. Galdera itxiak egin dira, gehienetan aurretik erantzuteko modua finkatuz, ondoren estatistiken bidez ondorioak ateratzeko. Noizean behin galdera irekiak egin dira, ikasleari bere erantzuna justifikatzeko eskatu zaiolarik. Esaterako, 57. galderak dio: «idatz ezazu lerro hauetan, ondoko galdera hauen inguruan bururatzen zaizun guztia: Euskara zertarako? Frantsesa zertarako?», Emaizten azterketak azterketa kualitatibo bat ahalbidetu du.

4. Azkenik, SEIk egindako Erabileraren IV. Kale Neurketa aipatzea ezinbestekoa da, beste ikerketekin osagarria baita. Neurketa 2001eko azaroaren 7 eta 10 bitartean egin zen Ipar Euskal Herriko 37 udalerrietan, oro har, 9.264 pertsona entzun zirelarik. Erabileraren lehendabiziko neurketa 1989an egin zen eta geroztik lau urtero errepikatu da. 1989an, 10.000 biztanletik gorako herrietan egin zenez, Baiona, Donibane-Lohitzun, eta Hendaia besterik ez ziren aztertu. 1993an egin zen III. kale neurketan, 5000 biztanletik gorako udalerriak neurtu ziren Ipar Euskal Herrian. Eta 1997an nahiz 2001ean burutu diren azken bi neurketetan, 1000 biztanletik gorako udalerri guztiak landu dira.

Euskararen bilakaerari dagokionez, IV. neurketak erakusten du euskararen erabilera % 7tik % 6ra pasatu dela 1993 eta 1997ren artean, geroztik % 6an mantendu delarik, edo, beste modura batera esanda, badirudi galera prozesu baten ostean egonkortasuna nagusitzen ari dela. Aitzitik, datu zehatzek erabileraren beherakada bat erakusten dute, nahiz eta mugatua izan. Izan ere, Ipar Euskal Herrian, 1997an, entzundako elkarriketen % 6,3an euskara erabili bazen, 2001ean % 5,8an baliatu zen. Gauza bera ageri da Lapurdin non, bolada berean, erabilera % 5,5tik % 5,1era igaro zen. Halaber, euskararen erabilera maila nahiko txikia da, Nafarroa Garaikoaren antzeko heinean kokatuz. Apalagoa da oraindik Lapurdiko hiri handietan, kontuan izanik, Hendaian % 5,4ekoa eta Baio-

nan % 5,1ekoa bada, Biarritzen zein Donibane Lohitzunen % 1,1 eta % 1,8 artean kokatzen dela.

AMAIERA

Beraz, unibertsitate mailako soziolinguistikaren irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren egoera Ipar Euskal Herrian, eragile guztien kontzientzia-hartze-ari, botere publikoena barne, eta hizkuntza politika baten osaketari lotua dago. Izan ere, euskararen aldeko neurriak hartzeko nahikeria, gelak irikiz, irakasle lanpostuak sortuz ala bekak eskainiz agertu da. Soziolinguistikaren irakaskuntza azken urteetan Euskal Ikasketetan garatu bada, lehenik Masterrean ordu gutxiko hautazko irakasgaien bidez eta ondoren Lizentzi- an ordu gehiagoko derrigorrezko irakasgaien bitartez, ikerkuntzaren ego- era hobea da zeren, Eusko Jaurlaritzak, INSEEk, Euskal Kultur Erakunde- ak ala Hizkuntza Kontseiluak buruturiko ikerketa zabal bezain handiez gain, zenbait ikerlarik lan sendoak eta zehatzak burutu baitituzte.

Geroari begira, baikor eta ezkor izateko arrazoiak daude. Irakaskun- tzak hazkunde urria ezagutu beharko luke: 1) irakasle espezializatu gutxi baitaude, Euskal Ikasketetako eta CNRSeko irakasle eta ikerlari titular bakar batek ere ez baititu soziolinguistikako gaiak jorratzen, 2) ikasle kopurua ez baita nahikoa, batez ere hirugarren urtetik gora non hamar bai- no gutxiago diren, 3) aurrekontuak ez direlako behar bezala emendatzen beharko lirakeen irakasleak kontratatzeko eta 4) ez baita unibertsitateko buruen lehentasunetan sartzen. Ikerketaren geroak alaiagoa dirudi kontu- an izanik: 1) sail ezberdinetatik datozen geroz eta ikerlari gehiago soziolin- guistikara interesatzen direla, 2) euskararen egoera eta batez ere bilakaera arazo politika larri bat bilakatzen ari dela, 3) publikoaren interesa piztu duela, irakaskuntza elebidunak duen arrakasta horren adierazlea delarik, 4) eta botere publikoek ezagutza premia baitaukate hizkuntza politika ego- ki bat osatu eta ondoren gauzatu ahal izateko.■

BIBLIOGRAFIA

Conseil de Développement du Pays Basque, *Schéma d'Aménagement et de Développement du Pays Basque*, 1999.

Conseil du Développement, *Diagnostic territorial Pays Basque*, Bayonne, 2002.

Convention Spécifique Pays Basque 2001-2006, Bayonne, 2000.

Eusko Jaurlaritzak, *Euskal Herriko soziolinguistikazko inkesta : Euskararen jarraipena I, II, III*, Gasteiz, 1991, 1996, 2001.

Insee, « Étude de l'histoire familiale », *Courrier des statistiques*, n°93, 2000.

Insee, « La transmission des langues et des parlers », Paris, *Insee Première*, 2002.

Institut Culturel Basque, *Regard sur l'avenir : les adolescents et la langue bas- que, situation au Pays Basque nord*, Ustaritz, 2001.

Euskararen bilakaerari dagokionez, IV. neurketak erakusten du euskararen erabilera % 7tik % 6ra pasatu dela 1993 eta 1997ren artean, geroztik % 6an mantendu delarik, edo, beste modura batera esanda, badirudi galera prozesu baten ostean egonkortasuna nagusitzen ari dela. Aitzitik, datu zehatzek erabileraren beherakada bat erakusten dute, nahiz eta mugatua izan.

*Geroari begira, baikor eta
ezkor izateko arrazoiak
daude. Irakaskuntzak
hazkunde urria ezagutu
beharko luke: 1) irakasle
espezializatu gutxi
baitaude, Euskal
Ikasketetako eta
CNRSeko irakasle eta
ikerlari titular bakar
batek ere ez baititu
soziolinguistikako gaiak
jorratzen, 2) ikasle
kopurua ez baita nahikoa,
batez ere hirugarren
urtetik gora non hamar
baino gutxiago diren, 3)
aurrekontuak ez direlako
behar bezala emendatzen
beharko liratekeen
irakasleak kontratatzeke
eta 4) ez baita
unibertsitateko buruen
lehentasunetan sartzen.*

Urteaga. E., « L'évolution de l'usage de la langue basque au Pays Basque ».*Revue de Sociolinguistique : Bat*, n°43, pp.51-63, Andoain, juin 2002.

Urteaga. E., « La langue basque au Pays Basque : diagnostic, évolution et prospective ».*Revue d'Études Basques : Lapurdum*, n°7, pp.327-338, CNRS, Bayonne, 2003.

Urteaga. E., *La politique linguistique au Pays Basque*. Paris, L'Harmattan, 2004.

Urteaga. E., « La langue basque au début du XXI^e siècle ».*Marges Linguistiques*, n°10, Paris, 2005.

Urteaga. E., *La langue basque dans tous ses états*. Paris, L'Harmattan, 2006.